

LITURGIA-GIDOIA

Karitate eguna. 2024ko ekainak 2, igandea.

Sarrera

Ongi etorri Corpus ospakizunera!

Jai honek gaur egun bizi dugun errealitate penagarriaren aurrean eta Eukaristia bakoitzean berritzen dugun kristau espirituaren aurrean jartzen gaitu.

Eguneroko albistEEK adierazten dute, indarkeriagatik, gerrengatik, jazarpengatik, gaixotasunagatik, miseriagatik eta hainbat eta hainbat narriadura- eta suntsipen-mehatxurengatik gaizki tratatutako pertsona, familia eta kolektibo gehiegi dituen mundu batean bizi garela.

Bestalde, gaurko jaiak gogorarazten digu gizakien gorputza eta bizitza, Kristoren Gorputza bezala, gaur egungo karitate eta anaitasun ebanjelikorako eta etorkizuneko Berpizkundearen aintzarako direla.

Caritas, elizbarrutikoa eta parrokiakoa, presente egiten da gaur egun, Kristau elkartearen laguntzarekin, mundu honetan «**aukera eta itxaropen**» izateko eta premia-egoeran dauden pertsonak eta familiak artatzeko.

Penitentzia-unea

Jainkoaren barkamena hartzea eta sentitzea gure bizitza etorkizun anaikorrako eta ebanjelikoago batera bideratzeko arrazoia da. Barkatzen digun Jainkoa imitatzea fede pertsonaleko zeinua da, eta itxaropen-bidea da gure familiarterako, gizarterako eta komunitateko bizitzan.

- Jauna, guk elkar laguntzea eta kontsolatzea nahi duzu zuk, ez elkarri min eta zauriak egitea. **ERRUKI, JAUNA.**
- Gure anai-arreba behartsuenetan ikusi eta maitatu nahi zaitugu, Kristo. **KRISTO, ERRUKI.**
- Jauna, geurekoikeriak eta gutziak karitate eskuzabalagatik truka ditzagun, Eta askorentzat «**aukera eta itxaropen**» izan gaitezten. **ERRUKI, JAUNA.**

Irakurketetarako

1. irakurketa. Ex 24, 3-8: Israelgo herriak Jaunaren aginduak errespetatzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen du. Ez da men egite pasiboko ekintza bat, askatasun errealista eta konprometitua duena baizik. Egipton jasan zuten esklabotza- eta zapalkuntza-egoera ez errepikatze helburu pertsonal eta kolektiboa da.

2. irakurketa. Hb 9, 11-15: Gurutzean isuritako Kristoren odolak, orain Eukaristian dagoenak, Jesusek errebelatutako *Jainko bizia gurtzera* bideratzen du gure arreta. Bere seme-alaba gutziak neba-arreba bezala bizitzea nahi duen Jainkoa da, bakezko, egiazko, errespetuzko eta karitatezko komunitate global batean.

3. irakurketa. Mc 14, 12-16.22-26: «Jainkoaren Erresuman ardo berria edatea» Kristorengan Bizitza Berria bere behin betiko Erresuman ospatzea da. Bitartean, Eukaristiak bizitza berri hori aurreratzera gonbidatzen gaitu, oraina hobetuz gure anaiarteko karitatearekin.

Fededunen otoitza

Jainkoak entzun diezagun nahi dugu, eta eskatzen diogunaz eta behar dugunaz aktiboki interesatu dadin.

- Elizaren eta Corpus jaia ospatzen duten komunitateen alde; Jesusek Eukaristian egiten duen moduan, '*abiatzea eta partekatzea*' praktikan jartzen asma dezagun. **Arren eskatzen dizugu, jauna.**
- Pobreziagatik edo gaixotasunagatik, mehatxuengatik edo indarkeriagatik, marjinazioagatik edo diskriminazioagatik baldintza penagarrietan bizi direnentzat «*aukera eta itxaropen*» izaten lagun diezagun. **Arren eskatzen dizugu, jauna.**
- Jaunak bedeinka ditzala eta lagun diezaiela gure eguneroko bizitzari eta gure inguruko pertsoneri; bete ditzagun gure bizitza pertsonala, familiakoa eta soziala itxaropenez eta karitatez. **Arren eskatzen dizugu, jauna.**
- Caritasek bere programak eta jarduerak garatzen eta hobetzen jarrai dezan, pertsona behartsu gehiagorengana iritsi ahal izateko; eta elizbarrutiko elkartearen laguntza eta estimulua inoiz falta ez dakizkion. **Arren eskatzen dizugu, jauna.**

Entzun eta erantzun, Aita, gure eskaerei. Lagun iezaguzu Zuk gugandik espero duzun horretan huts ez egiten, eta guregana hurbiltzen direnentzako karitate ebanjelikoaren testigantza izaten. *Jesukristo Gure Jaunaren izenean.*

Agurra

Elizbarrutiko eta parrokiako Caritasek «*aukera eta itxaropen*» izan nahi du Karitatearen bitartez. Pertsona behartsuei modu antolatuan eta etengabean arreta emateko misio ebanjeliko eta komunitarioa du.

Horretarako, kristau elkartek bidea markatzea, lagun egitea eta bide horri eustea behar du. Guztion lankidetzarekin eta ahaleginarekin arrakastaz bete ahal izango dugu inori beharrezkoa ez faltatzearen ideal ebanjelikoa. Eskerrik asko!